



### San Joango zozketaren emaitzak

Atxikitako dokumentuek asteartean, [otsailak 23](#), [izandako babes ofizialeko 60 etxebizitzaren zozketaren behin-behineko zerrendak](#) jasotzen dituzte. Lau kasuetan, 'lote zenbakia' izeneko zutabearen, zenbakia 'errepikatuta' hitzarekin batera dator. Honek esan nahi du lau eskatzaileei bi lote egokitu zitzaizkiela, izan ere eskatzaile horiek (beste batzuek bezala) zenbaki bat baino gehiago zituzten zozketarako, bizikidetza unitatearen arabera (bikotea, seme-alabak...). Hala ere, pertsona horiek EZ dituzte bi loteak eskuratuko, tokatutako lehenengoa baizik. Horrela, 'errepikatuta' hitzarekin azaltzen diren loteak, itxaron zerrendan dauden lehenengo laurei egokitu zaizkie. Ordizia Lantzen erakundea laster jarriko da harremanetan esleipendunekin.

Era berean, etxebizitzaren [planoak epe laburrean txertatuko dira](#) web orri honetan pdf formatuan.

Udalak jakinarazi nahi du, aurten, [babes ofizialeko beste 85 etxebizitza zozketatuko direla: printzipioz, 60 uda aurretik eta 25 uda ostean](#). Hauen zozketan parte hartu nahi dutenek eta oraindik izena EZ badute eman Babes Ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileen udal erregistro iraunkorrean, aukera dute eskaera betetzeko (eskaera orrian aurkitzen dira baldintzak) Udaleko Herritarren Arreta Bulegoan.